

MUko irakasle bat finalera iritsi da fabrikazioaren eremuko nazioarteko ikerkuntza-saririk ospetsuenetako batean: 2008ko Taylor Domina

2008/10/23

Ø Mondragon Unibertsitateak eta IDEKO Zentro Teknologikoak osatutako ikerketa-partzuergoaren izenean jardun du irakasleak.

Ø Benetan gertakari garrantzitsua dugu kandidatura hori, fabrikazioaren eremuko ikerkuntzan, orain arte ez baitu sari hori lortzeko aukerarik izan Espainiako ikertzaile batek ere.

Arrasate, 2008ko urriaren 17a. Mondragon Unibertsitateko irakasle Ivan Gallego Taylor Dominaren 2008ko edizioko hiru finalistetako bat izan da. Fabrikazioaren eremuan 35 urtez azpiko ikertzaileek zuzendutako lanak saritzeko nazioarteko saririk ospetsuenetako bat da Taylor Domina. Produkzio Ingeniaritzaren Nazioarteko Akademiak (CIRP) ematen du saria eta, aurtengo edizioan, beste bi hautagai iritsi dira finalera: K. Katahira japoniarra eta A. Azab kanadarra.

Fabrikazioaren eremuko ikerkuntzan mugarrria izan da hautagaitza hori, izan ere, orain arte Espainiako ezein ikertzailek ere ez du sari hori lortzeko aukerarik izan. Taylor Dominak Frederick W. Taylor Industria Ingeniari ospetsuari zor dio izena eta, 1958az geroztik, urtero-urtero ematen da, Produkzio Ingeniaritzaren eremuko ikerkuntzan meritu bikainak frogatu dituzten ikertzaile gazteak saritzeko.

Mondragon Unibertsitateak eta Ideko Zentro Teknologikoak osatutako ikerketa-partzuergoaren izenean jardun du Ivan Gallegok. Horiekin batera, Estarta Rectificadora eta Abrasivos Manhattan enpresak ere laguntzaile izan dira. Idekoko David Barrenetxea lanaren zuzendarikideak adierazi duenez, lortutako emaitzak "doitasun-arteztetan ikertzen emandako sei urteko lanen ondorio" dira. Ikerlan horretan 20 lagunek baino gehiagok hartu dute parte, ikertzaile, doktoregai eta karrera-bukaerako proiektuak egiten ari diren bekadunen artean.

Ivan Gallegoren eta David Barrenetxearen taldeak egindako lanak zentrorik gabeko arteztetaren ezegonkortasun nagusiak kentzeko oinarriak finkatu ditu. Fabrikazio-prozesu hori osagai sorta handiak ekoizteko erabiltzen da, haren produktibitate handiari esker. Halaber, taldeak teknika berriak garatu ditu arteztetaren ziklo optimoa aurreikusteko. Horri esker, beharrezko doitasuna lortzen da denbora laburragoan eta pieza kaltetu gabe. Hortaz, prozesuaren produktibitatea handitu egiten da. Aurrerapen horiek guztiak prozesua puntuan jartzeko industria-tresna adimendun berri batean sartzen ari dira. Tresna horri Estarta SUA (*Set Up Assitant*) deritzo eta, gidatze-sistema erraz baten bidez, prozesua ezegonkortasunik gabe eta ahalik eta denbora laburren gauzatzeko parametroak eskaintzen ditu. Estarta SUA horrelako lehenengo aplikazioa da nazioartean eta, ezagutza oinarri hartuta, produktu komertziala sorrarazten duen garapenaren adibide ona da.

Nazioarteko ospe handiko ikertzaileek sostengatu dute Ivan Gallegoren hautagaitza, hala nola, Fukuo Hashimotok, Bernhard Karpuschewskik eta Stephen Malkinek (arteztetaren eremuan inoiz izan den ikertzaile onena jotzen dute azken hori). Azkenik, saritua K. Katahira japoniarra izan da, erabaki polemikoa izan arren. Izan ere, bozkatzeko erabilitako sistema ikerkuntzan tradizioz handiena duten lurraldeen mesederako izan da. Horrek eraginda, sariaren ondorengo edizioetan bozkatzeko sistema aldatu egingo da.

Sari honetako finalista izan aurretik, Ivan Gallegok Kutxa Saria lortu zuen Makina-Erreminta eta Fabrikazio Teknologiei buruzko XV. Kongresuan. Espainiako Unibertsitate batek fabrikazioaren eremuan



egindako lanik onenari eskainitako saria da hori.

Azkenik, hizpide dugun ikerlanaren finantzaketa hainbat proiekturen bidez gauzatu da. Eusko Jaurlaritzako Industria eta Hezkuntza Sailek eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioko Sektore Ikerkuntza Teknikoa Sustatzeko Programen Zuzendariordetza Nagusiak jarri dituzte abian proiektu horiek.